

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Eleberri baten irakurketan, hipotesien formulazioaren bidez modu aktiboan inplikatu, helburuaren baitako informazioa inferitu, eta testuaren esanahia norbere esperientziaren testuingurura ekarri.	<p>1.1. Emandako informazioaren baitan eskatutako hipotesi justifikatuak egiten ditu.</p> <p>1.2. Hipotesiak egin ahal izateko emandako informazioa ulertzen eta barneratzen du.</p>
2. Gai jakin bati lotutako enuntziatuetan zein proposatutako berridazketetan, esandakoarekiko igorleak adierazten duen jarrera islatzeko hizkuntza baliabideak zuzen eta egoki aplikatu: iritzia edo ustea adierazteko baliabideak eta zalantza adieraztekoak, kausa-ondorio erlazioa dutenak, baldintza-ondorio erlazioa dutenak.	<p>2.1. Iritzia emateko esapideak txertatuz esaldiak berridazten ditu, horrek esaldian egitea eskatzen dituen aldaketak zuzen eginez.</p> <p>2.2. Ziurtasuna eta zalantza adierazteko egiturak txertatuz esaldiak berridazten ditu, horrek esaldian egitea eskatzen dituen aldaketak zuzen eginez.</p> <p>2.3. Aditzak zuzen jokatzeko indikatiboko geroaldian, ahalerako geroaldian eta baldintza hipotetikoan.</p> <p>2.4. Kausa-ondorio erlazioa duten egiturak barneratu ditu eta badaki horiek esaldietan adierazten.</p> <p>2.5. Aurkaritza erlazioa duten egiturak barneratu ditu eta badaki horiek esaldietan txertatzen.</p> <p>2.6. Baldintza-ondorio erlazioa duten egiturak barneratu ditu eta badaki horiek esaldietan adierazten.</p>
3. Ahozko tertulia literarioa eraikitzea helburu duen interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza baliabide egokiak erabiliz.	<p>3.1. Tertulia literarioetan eraginkortasunez aritzeko gidoi bat prestatzen du.</p> <p>3.2. Tertulia literarioa egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz.</p> <p>3.3. Tertulia literarioa osatzen du kideekiko begirunea adierazten duten esapideak txertatuz.</p> <p>3.4. Esaldiak osatzen ditu ideien arteko kaus-ondorio erlazioa edo aurkaritza erlazioa adierazteko testu-antolatzaileak erabiliz.</p>
4. Informazio soilak adierazten duten enuntziatuak balorazio enuntziatu bilakatu zentzu positiboa zein negatiboa adierazten duten adjektibo baloratiboak modu kontzientean erabiliz.	<p>4.1. Balorazioa adierazten duten esaldiak idazten/esaten ditu.</p> <p>4.2. Idazten/esaten dituen esaldiak zentzuzkoak dira, koherentzia semantikoa dago adjektiboaren eta gainerako esaldiaren artean.</p> <p>4.3. Adjektiboak esaldiak eskatutako deklinabide kasuetan zuzen idazten/esaten ditu.</p>
5. Ohar kritikoaren atalak ikasi, barneratu eta horiek baliatuz landutako irakurgaiaren inguruko ohar kritikoak idatzi.	<p>5.1. Ohar kritiko baten atalak bereizten ditu.</p> <p>5.2. Esaldiak osatzen ditu ideiak behar den bezala lotuz; kaus-ondorio harremanak, aurkaritza harremanak... zuzen adieraziz.</p> <p>5.3. Ortografia eta deklinabidea berrikusten ditu entregatu aurretik eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>
6. Irakurritako liburu baten inguruko ohar kritikoak egin ahal izateko baliabideak eskuratu, barneratu eta aplikatu.	<p>6.1. Kontrol-zerrenda baliatuz ohar kritikoaren egituraren atalak eta haien ordena egokia bermatzen ditu.</p> <p>6.2. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritiko datu bibliografikoen atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</p> <p>6.3. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritiko liburuaren edukiaren atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</p> <p>6.4. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritiko liburuaren balorazioaren atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</p>
7. Ohar kritikoak berrikusteko kontrol-zerrenda talde lanean sortu eta norbere ohar	7.1. Kontrol-zerrenda sortzean modu aktiboan parte hartzen du.

kritikoaren zein emanikoen berrikusketan aplikatu.	7.2. Kontrol-zerrendan adostutako urratsak norbere ohar kritikoak berrikustean aplikatzen ditu .
8. Bizipenak modu egokian kudeatu eta irakurritako liburu batean gertatzen direnekin alderatu .	8.1. Bizipenak egoki adierazten ditu eta besteekin alderatzen ditu enpatia erakutsiz.
9. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	9.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira. 9.2 Idatzizko testuetan ortografia ri erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.